



Kale Zaharreko futbolista beterruak

Kale Zaharrak emun dau, bai, makiñatxo bat futbolista. Oñatik kale klasiko horretan jaixo ziran Aloña-Mendin jardundako gazte-pillia eta Realera nahiz Athletikera ailegutako oñatir bakarrek. Goguan dakot, orain baiño kotxe gutxiago ebillenian, zelako futbol-partiduak jokaketan gustuan auzoko mutil eta mutikuak arbolea txikiñian bazkaloeste askotan. Inguru hareitan ikasitta-edo, argazki honetan ikusten dittugun batzuek be jokatu euen gure herriko futbol-talde nagusian. Fotografixan agiri diran dan-danak etziran Kale Zaharrekuak, baiña gehixenak bai. Eta etziranak be baeukain handik edo hemendik kale jator horrekin zerikusixa edo hartu-emunen bat.

Honeik 1982-1983 denboraldixan **Kale Zaharra** izeneko ekipuan ebiltzen futbolista beterru kanpeonatuan. Txapelketa hau 1974-1975 Gabonetan sortu zan **Torneo de Navidad** izenarekin eta lau talderekin: **Kikekoak**, **Pikupe**, **Lentif** eta **Zahar-kale**, gerora **Kale Zaharra** izango zana. Hurrengo urtian zortzi taldek parte hartu euen eta, politto-politto, inddartuaz fan zan. Laister bihurtu zan urte guztiko lehiakitia eta orduan **Beterru Txapelketa** izena jarri xakon oraindiok be arrakastaz jarraitetan dauen kanpeonato honi. Hogeta bi taldetik gora parte hartu izan daue iñoiz. Orduan partiduak San Lorentzoko futbol-kanpuan jokaketan ziran eta finala, barriz, Azkoagaiñen bagil (ekain) aldera. Orain be antzera: Ibarren txapelketa eta Azkoagaiñen finala.

Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue San Lorentzoko jolaslekuan atarata daguen argazki honetako kirolarixok:

Zutik: Joxe Luis Oianguren, Etxebarri; Agustin Errasti; Luis Oñate; Luis Arregi; Rafael Errasti, eta Fernando Azpiazu.

Makurtuta: Roke Ezeolaza, entrenadoria; Luis Azpiazu; Jabier Kortabarria; Anjel Elortza; Joxe Mari Sobrino, Joxe Mari Anduaga; eta Joxe Antonio Aiausti.

J. E.

Fotografixia Anton Sierrak eskuratu dosku eta argibidiak Antonen eta Anjel Elortzaren bittartez jakin dittugu. Eskernik asko bixoi!

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



GURE ESKUALDEAREN
ETA EUSKAL HERRIAREN
ZERBITZUAN

ELKARLANEAN
DIHARDUEN TALDEA

ANE MERTZERIA



• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI